

LA BELLE ET LA BÊTE

malandain | tchaïkovski

Euskadiko Orkestra Sinfonica / Orquesta Sinfónica de Euskadi
Ainars Rubikis, musika zuzendaria / director musical



2015

OPÉRA ROYAL DU CHÂTEAU DE VERSAILLES
abendua 11-12-13 diciembre

2016

EUSKADIKO ORKESTRAREN 15-16 ABONU DENBORALDIA
TEMPORADA DE ABONO 15-16 ORQUESTA DE EUSKADI
urtarrila 28 enero - Bilbo
otsaila 1 febrero - Iruña
ostaila 3-4 febrero - Donostia

BAILE LA BELLE ET LA BÊTE DANTZALDIA
otsaila 6 febrero

LA BIENNALE
DE LYON
DANSE



© Olivier Hauwé & Yocom



EUSKADIKO
ORKESTRA

malandain
ballet | biarritz



ELKARRIZKETAK / CONVERSACIONES
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
DSS2016.EU

Egutegia

2015

Biarritz - Gare du Midi
Abenduak 5/8, 20:30etan

Château de Versailles Spectacles
Opéra Royal - Saison Musicale 2015-2016
Abenduaren 11/12, Opéra Royal - Château de Versailles. 20:00etan
Abenduaren 13a, Opéra Royal - Château de Versailles. 16:00etan

2016

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 15/16 Abonu Denboraldia
Urtarrilaren 28a: Euskalduna Jauregia, Bilbo. 20:00etan
Otsailaren 1a: Baluarte Auditorioa, Iruña. 20:00etan
Otsailaren 3/4: Kursaal Auditorioa, Donostia. 20:00etan

La Belle et la Bête dantzaldia
Otsailaren 6a, Victoria Eugenia Antzokia, Donostia.

Egitaraua

Le Belle et le Bête (Ederra eta Piztia)

Piotr Ilich Tchaikovsky (1840ko maiatzaren 7a, Vótkinsk, Errusia – 1893ko azaroaren 6an, San Petersburgo, Errusia)
Eugene Onegin, Op. 24. Entreacto y vals
Sinfonía Nº 6, "Patética". 1. Adagio - Allegro non troppo
Hamlet, Op. 67
Sinfonía Nº5. 2. Andante cantabile
Sinfonía Nº5. 3. Vals
Sinfonía Nº6. "Patética". 4. Final. Adagio lamentoso

Andoni Mercero, kontzertinoa

Malandain Ballet Biarritz (Thierry Malandain, zuzendari eta koreografoa)
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Ainars Rubikis, zuzendaria

Parisera itzuliko dira, oraingoan *Ederra eta Piztia* muntaia aurkezteko
Euskadiko Orkestra eta Malandain Ballet Biarritz
Château de Versailles Spectacles-en denboraldian

Ainars Rubikis musika-zuzendari dela, Thierry Malandainen koreografia berria interpretatuko dute;
Donostia 2016ren *Elkarrizketak* ildoaren laguntzarekin

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Thierry Malandainek zuzentzen duen Malandain Ballet Biarritzek *La Belle et la Bête* (Ederra eta Piztia) ikuskizunaren eszenaratzea aurkezten dute, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren laguntzarekin. Muntaia hau bi erakunde hauen arteko hirugarren lankidetzaren da eta Orkestraren itzulera da Versailleseko Jauregiko Opéra Royal delakora, bertan debuta egin eta bi urtetara. Parisera bidaiatu aurretik, abenduraren 5ean eta 8an Ederra eta Piztia Biarritzeko Gare du Midin, Malandain Ballet Biarritzen egoitza izango da. Ondoren, hilaren 11, 12 eta 13an Opéra Royal antzokira helduko da. Eta 2016an, urtarrilaren 28tik otsailaren 4ra, Ederra eta Piztia Bilbo (Euskalduna Jauregia), Iruña (Baluarte Auditorioa) eta Donostia (Kursaal Auditorioa) interpretatuko da, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Abonu Denboraldiaren baitan.

Berriro Euskadiko Orkestraren eta Malandain Ballet Biarritzen arteko *pas de deux* urratsa. Aurrez 2011n *Magifique* eta 2013an *Cendrillon* ikuskizunek merezitako arrakasta itzelaren ondoren dator *Ederra eta Piztia*. Horietan Thierry Malandainen koreografiekin Euskadiko Orkestrak, hurrenez hurren, P.I. Tchaikovsky eta S. Prokofieven musika gehitu zien zuzenean. EOS eta Malandain Ballet Biarritzek berriz ere bat egin dute, Donostia 2016ren *Elkarrizketak* ildoaren baitan. Programazio-lerro hau tokiko kultur-programatzaileekin batera berariazko proiektuak sortzera bideratuta dago, xede izanik DSS2016EUren balioak hedatzea.

Orkestraren eta Frantziako 19 zentro koreografiko nazionalen arteko harreman estua artistikoki oso baliozkoa da eta horregatik Donostia 2016k ez-bairik gabe bat egin du haiekin. Elkarlan horrek osagarriak diren jarduerak garatzen dituzten kultur erakundearen artean sinergiak sortzeko duen garrantzia azpimarratzen du, sinergia horiek gerora eszenatoki garrantzitsuenetan aurkeztuko diren maila goreneko sorkuntzen garapena ahalbidetzen baitute, gure kulturaren eta bide batez gure gizarte osoaren ordezkari onena bilakatu.

Ederra eta Piztia ipuin ezagunak biltzen duen sinbolismo mamitsu zein aberatsa emankorra gertatu zaio oso Thierry Malandaini; koreografoak P.I. Tchaikovskyren musika erabili du bere lanik berrienean ere. Balleterako orkestra-zuzendari gisa eskarmentudun Ainars Rubikis letoniarraren zuzendaritzapean, Euskadiko Orkestrak *Eugene Onegu*in operako nahiz 6. eta 7. sinfonietako zatiak eta *Hamlet* interpretatuko ditu, ballet neoklasiko honen euskarri gisa. Jean Cocteau *Ederra eta Piztia*ren inguruan egindako irakurketa jarraituz, Thierry Malandainek, berak idatzitako kontzeptu-ohararen jasotakoaren arabera, honako hau proposatzen du: "Ipuinaren interpretazio oro alde batera utzirik, izatearen dualtasunean oinarritutako iniaziozko kontakizuna egitea: gizakiaren arima irudikatzen duen Ederra; eta Piztiak, aldiz, bere bizi-indarra eta senak islatzen ditu".

Château de Versailles Spectacles erakundearen Musika Denboraldia europar zirkuituko programazio zorrotzetako bat da. Irailtik ekainera bitartean, 70 bat ikuskizun biltzen ditu, Opéra Royal antzokian eta Versailleseko Jauregiko espazio ezagunetan. Kontzertu sinfonikoak, operak, balletak, errezitalak eta abar izaten dira eta aurten, Malandain Ballet Biarritz eta Euskadiko Orkestraz gain, ariko dira Sir John Elliot Gardiner, Les Arts Florissants eta William Christie, Hesperion XXI eta Jordi Savall. Anne-Sophie Mutter, Lang Lang, Mark Minkowski, Münchner Rundfunkorchester, Joyce DiDonato, Cecilia Bartoli, Gabrieli Consort and Players eta Paul McCreech, Alexandre Theraud, eta abar.

Opéra Royal, Paristik ekialderuntz 17 kilometrotara dagoen Versaillesko Jauregiko antzokia Ange-Jacques Gabriel eta Blaise-Henri Arnould, Luis XV.aren arkitekto eta makinista nagusiek diseinatu zuten, 1770ean inauguratu zuten, Luis XVI. a oinordekoaren eta Maria Antonieta Austriako artxidukesaren arteko ezkontzaren ekitaldien artean. Luis Feliperen garaian Frédéric Nepveu-k apaindueraz eraldatua, 1871.ean antzoki izaera galdu eta Senatuaren egoitza bilakatu zen. 1957. urtean, André Japyk zuzendutako berritze lan sakonen ondoren, itzuli zen berriro ere antzoki izatera. Eszenaren tamaina erraldoia, akustikaren kalitatea, proportzioen perfektioa eta apaingarrien dotoretasunak munduko antzoki ederrenen artean kokatzen dute antzoki hau. Egun 700 ikuslerentzat toki duen eszenatoki eder honetan berrogeita hamar bat ekitaldi izaten dira urtean. Versaillesko Jauregia, 1979an UNESCOk gizadiaren ondare izendatua, XVII. mendeko frantziar artearen erakusle ederrenetako dugu, Europako errege erakuntza nabarmenenetakoa.

Versaillesera bisitaldi berri hau hamazazpigarren nazioarteko bira da Euskadiko Orkestra Sinfonikoarentzat. Azken urteotan, Versaillesen debuta egiteaz gainera, Orkestra Europa mailan musika garaikidearen erdigunea den Biennale di Venezia ospetsuan aritu da.

La Belle et la Bête

Genesisia. Thierry Malandainek, hasiera-hasieratik bilatu duena zera da, “plazeraren arrastoa uzteaz gain, jainkotasunarekin adiskidetu nahi duen dantza, izatearen zailtasunei erantzuteko”. Horrexegatik, Château Versailles Spectacleseko zuzendari Laurent Brunnerrek sinbolismoz beteriko *Ederra eta Piztia* istorioan oinarri balleta egitea proposatu zionean proiektua naturalki jarri zen martxan. Era berean, istorio unibertsal bezain frantses honen aurreestreiandia Versailles Jauregiko Errege Operan egiteak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera, naturala zirudien ere. Laguntzaile leial asko ditugu bidaide Malandain Ballet Biarritzen ekoizpen honetan. Donostia hiria, Europako Kultur Hiriburua 2016an, horietako bat da; bere leloetako bat “Elkarrekin bizi” den heinean, *Ederra eta Piztia*ren ikuskizunak zentzuz beterik egongo dira.

Sinopsia. Eugene Onegin, Op. 24 Ekitaldiate eta bals. Honela dio arima eta gorputzeko, bere poztasun, atsekabe eta itxaropenak dituen gizonezko batek: Behin bazen merkatari aberats bat, bi seme eta hiru alaba zituena. Txikiena, polit askoa, hain den miretua Ederra esaten diotela: bere ahizpak jeloskor eginaz. Bi zaharrenek, beren diruaz harro, noble-jatorriko damen gisa bizi eta dantzaz dantza igarotzen dituzte arrats guztiak. Egunen batean, bat-batean, merkatariak bere diru guztia galdu eta landetxe txiki bat baino ez zaio geratu, hiritik urrun. **6. Sinfonia, “Patetikoa”.** **1. Adagio - Allegro non troppo.** Bere ahizpak negar batean bizi eta nobleen bizitza eta ohiturak samintasunez oroitzen duten bitartean, Ederra egoera berrira egokitu da. Noble askok berarekin esposatzeko gogoia agertu badute ere, berak ezin du aita utzi. Urtebete ematen dute horrela, merkatariak bere salgaiak dakartzan itsasontzi bat kaiara iristear dagoela entzuten duen arte. Aita hirira doala jakiterakoan, bi neska zaharrenek soinekoak eta era guztietako pitxiak ekartzea eskatzen diote aitari. Ederrak larrosa bat baino ez du nahi. Etxera bueltan, aita galdu egiten da. Haize bortitzak zalditik lurrera bota du. Berehala, argitxo bat ikusten du. Gaztelu batetik dator; bertan sartu da merkataria aterpe bila eta mahaia afarirako prest aurkitu du. Biharamunean, bidean hasi aurretik, Ederraren eskariarekin oroitua eta larrosarik zuriena hartu du lorategitik. **Hamlet, Op. 67.** Une horretan, soinu izugarria entzun eta Piztia ikusi du: hain itsusia, ezen konortea galtzeko zorian uzten duen: “Gizon eskergabea, oiher egiten du Piztiak; bizitza salbatu dizut nire gazteluan aterpe emanaz eta, ordainean, munduko gauzarik kuttunena ditudan larrosotako bat lapurtu didazu. Bizitzarekin ordaindu beharko duzu. Barka diezazuket, ordea, zure alabetako batek zure orde zure emango balu bere bizitza”. Bakardadean, bere barruko deabruarekin borrokan dagoen artistaren gisa Piztia, bere itsusitasunaz etsita, bere metamorfosiaren osagai sinbolikoei deitzen die: giltza, zaldia, ispilua, eskularrua eta amodioa, salbatuko diona. Handik ordu gutxira merkataria etxera iritsi da eta gertatutakoa azaltzen dio familiari. Entzun ahala oihuka hasten dira guztiak, bai eta Ederra madarikatzen ere, honek ez baitu negar-tantarik agertu. “Zergatik aitarengatik negar egin? Bera ez da hilko. Munstroak bere alabetako bat onartuko duenez, bere suminaren aurrean jartzeko prest nago”, dio Ederrak Piztiaren gaztelurantz abiatu aurretik. **5. Sinfonia. 2. Andante cantabile.** Izutua hasieran, patua ez da berak uste duena izango ordea: Piztiak bere erara lisongatzen du, kortesiaz betez eta bitxi ugari emanaz. “Nirekin esposatu nahi duzu?” galdera gauero egiten dionean, ordea, Ederrak ezezkoa ematen dio. Aita ikusi besterik ez du nahi, gaixorik dagoela ikus baitezake ispiluan. Piztiak amore ematen du azkenean eta Ederrak zortzi egun igarota bueltatuko dela agintzen dio. **5. Sinfonia. 3. Bals.** Ederra eta aita berriz elkartzen direnean elkarri besarkatuta egoten dira denbora luzez. Ahizpak, bitartean, inbidiak jota hiltzear daude, bere jantzi ederrak ikusita. Handik gutxira, ordea, Piztia bakarrik uzteak tristetu egiten du, heriori ongi etorria emateko prest baitzegoen. **6. Sinfonia “Patetikoa”.** **4. Amaiera. Adagio lamentoso.** Gazteluan sartu eta Piztia lurrean botata ikusten duenean bere ondoan belaunikatu eta ondokoa xuxurlatzen dio Ederrak: “esan adio heriori; bizi eta nire senarra izan zaitez”. Hori esandakoan gaztelua argiz bete eta Piztia Printze xarmant bat bihurtzen da.

Protagonistak



Foto: Olivier Houeix

Thierry Malandain. 80tik gora koreografia egin dituela, dantzaren errepertorio koherentea osatzen jarraitzen du Thierry Malandainek, Balletari estuki lotua, non gorputz dantzaria, bere indarra, bertuosismo, gizatasun eta sentsualitatea lehenesten dituen. Zentzuaren eta estetikaren bilaketa estilo soil eta intemporal baten oinarria da. Serio bezain lotsagabe izan daitekeen estiloa, zeinaren aberastasuna bai erroetan bai dantza akademikoaren ikuspegi berri batean oinarritzen den. Bere konpainia dantza klasikoaren teknikan adituak diren baina koreografien bidez egungo espresioa azaleratzen duten dantzariez osatuta dago. “Konplexurik gabeko ballet klasikoarena da nire kultura eta hori da nik garatzen dudana. Bere kode artistiko eta sozialak beste garai batekoak direla onartzen badut ere, nire ustez lau mendeko historiarendantik jaso dugun material horrek guztiak baliabide paregabeak eskaintzen baitizkio dantzariari. Dibertitzea, maite dudana dantza lortzea da nire nahia, klasikoa izango dena zenbaitentzat, garaikidea bestentzat. Plazeraren arrastoa uzteaz gain, jainkotasunarekin adiskidetu nahi duen dantza, izatearen zailtasunei erantzuteko”.

CCN Malandain Ballet Biarritz. 1998an sortu zen Kultura eta Komunikazio Ministerioak eta Biarritzeko Hiriak bultzatuta. Akitaniako Eskualdearen eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren laguntzarekin ere, Malandain Ballet Biarritz Frantziako hemeretzi Zentro Koreografiko Nazionala (ZKN) bat da. Malandain Ballet Biarritzen ezaugarri nagusia, aldiz, honako hau: taldea osatzen duten hogeita bi dantzarren espezializazioa teknika klasikoa bada ere beren espresioa garaikidea dela, Thierry Malandainen koreografien bitartez. Malandain Ballet Biarritz ikusle gehien dituzten Europako konpainien artean dago egun: 80.000 ikusle hartzen ditu urteko eta 100 bat ikuskizun eskaintzen ditu, horietako herena atzerrian delarik. Zentro Koreografiko Nazional gisa, Malandain Ballet Biarritzek ekintza ugari gauzatzen ditu ikusleen sentsibilizazioari (450 ekintza urteko, batzaz beste) eta artista eta konpainiak babesteari (Harrera Estudioaren bidez) dagokienean. Espainia – Frantzia – Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen eta Donostiako eta Biarritzeko hirien laguntzarekin, 2007tik aurrera Victoria Eugenia Antzokiak eta Malandain Ballet Biarritzek arte- eta kultura-lankidetzarako proiektu bat garatu dute, Ballet T izenekoa. Bere xedea da arte koreografikoa Euskal Herrian zehar hedatzea, koprodukzioaren eta lan koreografikoen sustapenaren bidez eta, era berean, ikusleak sentsibilizatzea eta beraien mobilizazioa sustatzea Akitania-Euskadi Euroeskualdearen baitan. malandainballet.com




Foto: Victor Dmitriev

Ainars Rubikis, zuzendari musikala. Rigan jaioa (Letonia), orkestra-zuzendaritza ikasketak Andris Vecumnieksek egin zituen Ainars Rubikisek; halaber, ikasgai magistralak egin zituen Mariss Jansons eta Zsolt Nagyrekin. 2010ean, 3. saria lortu zuen Gustav Mahler nazioarteko lehiaketan. "Egia eta substantziari emaniko saria", dio The Financial Timesek lehiaketa bukatu ostean. 2011n Nestlé / Salzburgoko Jaialdiko lehiaketa irabazi eta Gustav Mahler Orkestra Gaztea zuzendu zuen bertan. Iaz, Golden Mask saria jaso zuen (Errusia). 2012 eta 2015 bitartean Novosibirskoko (Errusia) Estatu Opera eta Balleta zuzendu zuen. 2014/15 denboraldian Tiroleko Estatu Antzokiko Orkestrarekin eta Samarako Sinfonikoarekin lehenengoz lan egin du. Bai etsa Gulbenkian, Île -de-France Eskualdeko Orkestra Nazionalea eta Royal Northern Sinfonia orkestrekin berriz topatu ere. Operaren alorrean, *Tannhäuser* Novosibirsken zuzendu eta Bartzelonako Liceu Antzokian egin du debuta (*Carmen*). Iraganean, ondoko orkestrekin lan egin du: Luzernako Orkestra Sinfonia, Loira Herrialdeko Orkestra Nazionalea, Estoniako Nazionalea, Bambergeko Sinfonikoa Edinburgoko jaialdian eta Hong-Kong, Oslo, Brusela, Budapest, Duisburgo eta Poznánogo filarmonikoak. Era berean, *Don Giovanni* zuzendu du Letoniako Opera Nazionalean, *Carmen* Tokioko Antzoki Nazionalean eta *La Finta Giardiniera* Bambergen. 2015/2016an Residentie Orchestra, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta San Petersburgoko Filarmonikoarekin lan egingo du. Era berean, bere debuta

egingo du Moskuko Bolshoi Antzokian *Boris Godunov* zuzenduz; eta 2016-2017an, bere lehen opera zuzenduko du Ipar Ameriketara.



Foto: Juantxo Egaña

Orquesta Sinfónica de Euskadi. 33 urteko ibilbidearen buruan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak tinko eusten dio musika sinfonikoa zabaltzearen bere bokazioari, euskal musikari arreta berezia eskainiz. Finkatutako eta ongi egituratutako jarduerak lau kontzertu ziklo iraunkor (Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruña), ganbera-musika eta gaztetxoentzako kontzertu-ziklo ezberdinak eta bereziki euskal konpositoreen sorkuntza sinfonikoaren inguruko ekoizpen diskografiko nabarmena burutzea ahalbidetzen dio Orkestrari. Gainera, orkestra gonbidatu gisa aritu ohi da udako jaialdi, opera, eta ezohiko kontzertuetan, musika gure lurraldeko txoko guztietara zabalduz. Halaber, tailer zein kontzertuen bidez geroz eta gizarte jarduera nabarmenago bat burutzen du bestelakotasun funtzionala duten pertsonen gizareratzearen alde. Aipagarria da nazioarte mailako 16 bira burutu dituela Argentina, Brasil, Txile, Alemania, Austria, Suitza, Frantzia, Erresuma Batuan eta Italian. Guzti honen ondorioz, Euskadiko Orkestra erreferentziatzko orkestra dugu, bai erkidego mailan, urtean 150.000 entzule biltzeagatik, eta estatu mailan 7.000 abonatu dituen orkestra bakarranetakoa delako. Egun, sortu zenean finkatutakoari jarraiki, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak euskal kulturaren enbaxadore izatearen bere betekizunari erantzuten dio. Horren adibide, Malandain Ballet Biarritzekin lankidetzan Thierry Malandainen azken sorkuntza, *Ederra eta Piztia*, estreinatuko du Château de Versailles delakoan, Biarritz y euskal eszenatokietan. Orkestra 1982ko apirilaren sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustatu eta garatua. Gaur egun Jun Märkl Zuzendari Titularra da eta Andrey Boreyko Zuzendari Printzipal Gonbidatua. euskadikoorkestra.eus